

## EUSKAL HERRIA

## MIDAS-EN I. MINTEGIA



## AEK eta EITB ezagutzeko txanda

MIDASen I. Mintegian parte hartzen ari diren kazetariak atzo bi hitzordu izan zituzten. Goizeko 10:00etan AEK-ko ordezkariak egin zuten bilera AEK-ren Donostiako egoitzan. AEK zer den, helduen euskalduntze eta alfabetatzeak izan duen bilakaera, ikasleen profilak, euskalduntzearen trabak eta abar azaldu zizkieten MIDASeko kazetari.

Korrika ekimenak erabat txundituta utzi zituen. Handik, EITBko Miramongo egoitzara joan ziren eta Euskadi Irratia eta Euskadiko Gazteko zuzendari Odile Krutzeta, EITBko prentsako buru Lontzo Sainz eta Miramongo zuzendariorde Jabier Arizkoretarekin izan ziren. *Goenkale*-ko produkzio osoa ezagutzeko parada izan zuten. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

## DANIEL RADETIC ⓘ 'PRIMORSKI DNEVNIK' EGUNKARIKO KAZETARIA

## «Esloveniera ofiziala den arren, hizkuntz urraketak asko dira»

AGURTZANE SOLBERRIETA - ANDOAIN

*Primorski Dnevnik* Eslovenia eta Italiako mugan dauden Trieste, Gorica eta Udine herrialde italiarretan eslovenieraz argitaratzen den egunkaria da. Eremu horretan milioi bat herritar bizi dira, eta horietatik %10ek eslovenieraz hitz egiten dute.

**Noiz sortu zen zuen egunkaria? Eta zer ezaugarri ditu?**

II. Mundu Gerran sortu zen, 1943. urtean, hain zuzen. Gerra amaitu zenean, Italian bizi ziren esloveniarren egunkari bilakatu zen eta gaur egun ere Italiako esloveniar eremuan eslovenieraz egiten duen egunkari bakarra da gurea. 24 eta 32 orri ditu eta 15.000 aleko tirada du. Denetarik lantzen dugu eta politikak eta ekonomia sailek indar handia dute gurean. Bi egoitza nagusi ditugu; bata, Triesten eta bestea, Gorican, eta nik han egiten dut lan.

**Zenbat hizkuntz komunitate daude Italiako esloveniar eremuan?**

Hiru hizkuntza hitz egiten dira eremu horretan; italiara, esloveniera eta friulanoa. Eslovenierak Italiako eremuan 100.000 hitz-tun ditu gutxi gorabehera.

**Eta esloveniera hizkuntz ofiziala al da Italian?**



ANDONI CANELLADA

2001ean Italian lege bat onartu zen, eta lege horren arabera esloveniar eremuan esloveniera garatu egin beharko litzateke. Lege hori onartu aurretik, herri batzuetan ofiziala zen, baina beste toki batzuetan ez. Lege horrekin eremu guztietan ofiziala izatea lortu zen. Hala ere, esan behar da, 1945. urtetik datorren aldarrikapena dela. Ia 60 urte itxaron behar izan ditugu, esloveniera eremu horretan, hots, eremu osoan ofiziala izateko.

**Urte horietan ofizialtasuna eskatzeko mugimendurik izan al da?**

Mugimendu ugari egin izan dira:

mobilizazioak, sinadura bilketak, manifestazioak... Gaur egun, hala ere, ofiziala den arren, hizkuntz urraketak asko dira. Izan ere, administrazio publiko askotako langileek ez baitakite eslovenieraz. Eremu batek bestera egoera asko aldatzen da, borondate politikoaren arabera. Legea ez da jarri osotasunean praktikan, hiztun guztiok ez baititugu eskubide berberak.

**Italian eskuin muturra dago agintean. Inoiz gerta al daiteke egunkariaren bat ixtea?**

Gaur egun ezinezkoa da egoera hori gertatzea. Faxismo gogorra bizi izan dugu han. Faxismoaren garaian, Italian bizi ziren esloveniarrei eskubide asko murriztu zituzten: izen-abizenak aldatu behar izan zituzten, eskolak eta gune ekonomikoak itxi zituzten, eslovenieraz ezkutuan hitz egin behar zen. Esloveniera asko desprestigiatu zuten. Gaur egun, nahiz eta eskuin muturra izan agintean, ez litzateke horrelakorik gertatuko.

**Zer moduz topaketa hauetan?**

Ondo. Hemengo egoera zuzenean ezagutu dugu, era objektiboa. Iturri ofizialek eta hainbat komunikabideek zabaltzen duten irudia ez da hemengo errealtatea.

## ETXEBIZITZA

## Etxebizitzen arazoa salatu du Azkaine eta Senpereko Batasunak

Azkaine eta Senpereko biztanleak bikoiztu egin dira 40 urtean. Ondorioz, metro koardroaren prezioa etengabe biderkatu da eta arazo larriak dituzte etxea erosi edo alokatzeko. Batasunak horri aterabidea emateko kanpaina abiatu du. Otsailaren 27an mahai-inguru bat izanen da Azkaingo Herriko Etxean eta martxoaren 21ean elkarretaratzea, Senperen *Euskal Herria ez da salgai* leloarekin.

## ITOIZKO URTEGIA

## Arluzean zintzilikatu ziren solidarioak atzo gauean jaitsi ziren

Arluzea haitzera igo eta han kateatu ziren Itoitzekin Elkartasuna taldeko lau kideak atzo gauean jaitsi ziren paretatik. Arratsaldean horman zintzilik ziren bi solidarioetako bati hamaka hautsi zitzaion. Haizeak, gainera, gogor jotzen zuen Arluzean eta hoztu egin zuen nabarmen eguneko azken orduetan. Itoizko urtegia betetzeko probak bertan behera utz ditzaizen eskatzeko zintzilikatu ziren lau solidarioak.

## OSASUNA

## Irungo emakume bat hil da urdaila txikiago jartzeko ebakuntza baten ondorioz

Astelehenean Irungo 48 urteko emakume bat hil zen, urdaila txikiago jartzeko abenduaren 2an egindako ebakuntza baten ondorioz. Osakidetza emanako datuen arabera, Donostia Ospitalean, duela zazpi urtetik hona, astero egiten dute urdaila txikiago jartzeko ebakuntza bat, eta urte horietan hiru lagun hil dira. EAEko Osasun sailburu Gabriel Inclanek agerraldia eskatu du Legebiltzarrean gizentasunaren gaixotasunari aurre egiteko erabiltzen diren bideak azaltzeko.

## BIZI-ITXAROPENA

## Euskal Herriko emakumeek dute bizi-itxaropenik handiena

Euskal Herriko emakumeek dute Europa osoko bizi-itxaropenik handiena, batez beste 84,7 urte, ikerketa baten arabera. Hori dela eta, menopausia ondorengo urteetan emakumeek osasun atentzio handiagoa behar dute. Izan ere, menopausiarekin batera, zenbait gaixotasun izateko arriskua handitu egiten da, loditasuna kasu.

## GENERO INDARKERIA

## Neska bat bortxatu zuten bost lagunetatik bi atxilotu dituzte Baionan

ERREDAKZIOA - IRUÑEA

Joan den ostiral gauean bost mutil gaztek 16 urteko neska bat bortxatu zuten Baiona Tiplan. Neskak ezagutzen zuen mutil batek felazio bat egitera bortxatu zuen kalostre batean. Handik pasatu ziren bost mutilek mutila baztertu eta taldean bortxatu zuten neska. Dagoeneko Poliziak hiru gazte atxilotu ditu, bi bortxaketarengatik eta hirugarrena larri dagoen pertsonari laguntza ez emateagatik.

Arabian, berriz, 54 urteko gizon bat atxilotu zuten here-negun Bastidan, alaba eta beste hiru neskatortxatzeagatik. Egun berean, beste gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak Gasteizen, bikotekidea jipoitzeagatik.

## Erasoak eta elkarretaratzeak

Guardia zibil batek lau urteko espetxe zigorra jaso du emazte ohiari tiro egiteagatik. Nafarroako Castejon herrian lan egiten zuen aipatu guardia zibilak eta eskuineko hankan egin zion tiro emazteari, 2002ko azaroaren 10ean.

17 urteko neska-laguna jipoitzeagatik eta bahitzeagatik beste gizon baten kontrako epaiketa egiten ari dira egunotan, Iruñean. Atzoko saioan aditu batek erran zuen «zantalzarik gabe» berriz ere kolpatuko duela gizonak bikotekidea, aukera izanez gero. Nafarroan, gainera, gizon bat atxilotu du Guardia Zibilak, haurdun zegoen neska-laguna etxetik botatzeagatik, Donezteben. Guardia Zibilak errepidean aurkitu zuen emakumea. Maletekin zihoan, oinez. Buruan kolpea zuen.

Bestalde, prostituzio sare bat bertan behera utzi dute Espainiako Poliziak eta Barakaldoko Udaltzaingoak, Bizkaian. Errumaniako hiru lagun atxilotu dituzte.

Euskal Herriko Bilgune Feministak elkarretaratzeak antolatu ditu gaurko, Hendaia-ko hilketa salatzeke: 20:30ean Gasteizko Andre Mari Zuria plazan eta Iruñeko Udaletxe plazan eta 19:30ean Bilbon, Arriagaren parean.

LABek ere erasoak salatzeke elkarretaratzeak deitu du biharko Baionako San Andres plazan eta igande eguerdian Hendaia-ko kasinoan.